



DANIEL CARASSO FELLOWSHIP 2025 III.DEIALDIAN

ESKAERAK AURKEZTEKO BARNE EPEA 2025/03/03RA ARTE (12.00ETAN)

BETEBEHARREKO BALDINTZAK:

- a) Proposatzaileak 2025an aktibo dagoen ikertalde bateko kideak izan beharko dira. Ikertalde aktiboak dira halakotzat aitortuak izan direnak Eusko Jaurlaritzaren deialdietan edo UPV/EHUren deialdietan.
- b) UPV/EHUK proposatutako **kontratazio-modalitatea** ZTBLren 22. artikulua araututakoa da, eta 3 urteko iraupena du. **Taldeak 3. urtea finantzatuko luke.** Kontratazioaren kostu zenbatetsia 52.000 (*) eurokoa da urtean. Kontratazioari buruzko zalantzak Ikerketaren Errektoreordetzara zuzendu daitezke.
- c) Deialdia zabalik egongo da 2025ko martxoaren 10era arte 14:00etan (Kanpo epea).
- d) Deialdia edozein zientzia-diziplinako eta nazionalitateko ikertzaileentzat dago zabalik, doktoretza lortu zutenetik 2 eta 7 urte arteko esperientzia dutenentzat.
- e) Doktorego-tesiaren defentsa-data 2018ko urtarrilaren 20tik 2023eko urtarrilaren 20ra bitartekoa izan behar da (ikus salbuespenak deialdiaren oinarrietan). Laguntza bakoitza 120.000 eurokoa da kontrataziorako eta 40.000 eurokoa ikerketaproiekturako.
- f) Hautagaiak Espainiako unibertsitate edo ikerketa-zentro publiko edo irabazi-asmorik gabeko entitate pribatu bateko ikertzaile finkatuek izendatu behar dituzte.

(*) Goian adierazitako zenbatekoak gutxienekoak eta behin-behinekoak dira, eta honako hauen arabera alda daitezke: soldata-igoera urte desberdinetan, soldata-osagarrien igoera (hirurtekoak, euskotramoak) edo kalte-ordainen kostuaren doikuntzagatik alda daitezke.

Deialdi honetara aurkeztu diren eskabide guztiek UPV/EHUko Ikerketa Errektoreordetzaren alde aurreko baimena izan beharko dute.

Horretarako, **dokumentazio hauek aurkeztu** beharko dituzte:

- **Baterako finantzaketarako konpromisoa**
- Pertsona izendatuaren curriculum vitae (formatu librea Word edo PDF formatuan).
- Doktorego-tesiaren irakurketa-data egiaztatzen duen agiria.
- 5 eta 10 argitalpen arteko zerrenda eta laburpen labur bat (Word edo PDF), ikerketan eta, zehazki, elikadura iraunkorrean egindako ekarpen garrantzitsuenak nabarmentzen dituena, bai inprimatuak (liburuak, aldizkari zientifikoak, kazetaritza-artikuluak eta orotariko aldizkariak), bai



elektronikoak (webargitalpenak, audioak, bideoak, multimedia-dokumentuak, etab.).

- Argitalpen bakoitzaren PDF kopia bat (3MB artxibo bakoitzeko gehienez).
- Ikerketa-proiektua (gehienez 4 orrialde).
- Izendatzaileak idatzi eta sinatutako izendapen-gutuna. Bertan, proposamena argudiatuko da eta proposatutako ikertzailearen karrera zientifikoa eta akademikoa nola babestuko den azalduko da (adibidez, prestakuntza-lanak, egiten ari diren edo taldearen barruan egingo diren ikerketaproiektuak, etab.), bai eta bere ikerketa-ildoan eta sartzen den taldearen arteko sinergiak ere.
- Izendatutako pertsonak maila profesionalean lan egin duen edo kolaboratu duen ikertzaileen bi gomendio-gutun.

Dokumentuak ingelesez aurkeztu behar dira Daniel Carasso fundazioaren aplikazioan.

Dokumentazioa UPV/EHUri aurkeztea

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 e) artikuluan eta UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Ebazpenean (UPV/EHUREKIKO harreman elektronikotan interesa duten pertsonen eta bertan lan egiten duten langileen identifikazio eta sinadura elektronikoki buruzko jarraibidea onartzen duena) ezarritakoarekin bat etorritik, eskaera UPV/EHUko erregistro elektronikoa Orokorrean aurkeztu beharko da (URL <https://egoitza.ehu.eus/opencms/system/modules/sede/index>) eta eskaera eremuan honako hau adieraziz: "ikerketa errektoreordetza-RRHH-Daniel Carasso" Unitatea (U02000256). Horretarako, UPV/EHUko enplegatua ziurtagiri elektronikoa, Izenperen Erabiltzailearen Ziurtagiri Digitala, NAN elektronikoa edo FNMT-CERES Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria erabili beharko dira.

UPV/EHU harremana:

Email: pre-postdok.dgi@ehu.eus

Daniel Carasso eta Nina Carasso

Fundazioan harremana:

Email: alimentacion@fundacioncarasso.org